

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko azaroaren lauko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia ez da etorri.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia ez da etorri.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2010EKO URRIAREN 7KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.010eko urriaren 7ko aktaren berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

2011 EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN HASIERAKO ONARPENA.

Alkateak 2.011 ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko ondorengo proposamena egiten du.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Iazko urteko tarifei % 2,0ko igoera aplikatuta.

Turismoak

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	25,53 euro
9 eta 11,99 zaldi fiskal artekoak	58,65 euro
12tik 13,99 zaldi fiskal artekoak	125,94 euro
14tik 15,99 zaldi fiskal artekoak	141,94 euro
16tik 19,99 zaldi fiskal artekoak	157,96 euro

20 zaldi fiskaletik gorakoak 187,80 euro

Autobusak

21 plaza baino gutxiagokoak 147,52 euro.

21etik 50 plazara bitartekoak 210,06 euro.

50 plaza baino gehiagokoak 262,57 euro.

Kamioiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiagokoak 74,68 euro.

Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 bitartekoak 147,52 euro.

Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 bitartekoak 210,06 euro.

Karga erabilgarriko 9.999 baino gehiagokoak 262,57 euro.

Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak 31,29 euro.

16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak 49,17 euro.

25 zaldi fiskal baino gehiagokoak 147,52 euro.

Atoi edo erdiatoiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiagokoak 31,29 euro.

Karga erabilgarriko 1.000 kg.tik 2.999 bitartekoak 49,17 euro.

Karga erabilgarriko 2.999 baino gehiagokoak 147,52 euro.

Beste ibilgailu batzuk: ziklomotoreak eta motozikletak

Ziklomotoreak 7,81euro.

125 cc.ra bitarteko motozikletak 7,81 euro.

125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak 13,44 euro.

250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak 26,84 euro.

500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak 53,66 euro.

1.000 cc.tik gorako motorrak 109,92 euro.

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 57.698,21 €.

UR HORNIDURA, ZABOR BILKETA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUEN GAINEKO TASA

Ur hornidura zerbitzuko tasaren Iazko tarifei % 3,5ko igoera aplikatuta:

Ur Hornidurako Zerbitzuko Tasak

Etxeko hornikuntza:

Gutxienezko 60 m ³ sei hilabetetan	0,54 euro/m ³ ko
60 m ³ tik 120 m ³ etara	0,66 euro/m ³ ko
120 m ³ tik gora	0,70 euro/m ³ ko

Industri hornikuntza

Gutxienezko 60 m ³ sei hilabetetan	0,90 euro/m ³ ko
60 m ³ tik gora	1,08 euro/m ³ ko

Kontagailua mantentzeagatiko kanona:	3,86 euro
Industrietan kontagailua mantentzeagatiko kanon:	6,77 euro
Lotune eskubideak:	77,45 euro
Lotune birjarpena:	19,32 euro

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 5.278,82 €

Zabor Bilketako Zerbitzuegatik Tasak Igoera % 2,0a, baserriak ezik %25-a (Sehilabetero)

Herri guneko etxebizitzak	45,18 euro.
Baserriak	30,00 euro.
Taberna, Kafetegi, Elkartek, etab.	90,64 euro.
Industri Lokalak	174,94 euro.
Merkatal Lokalak	70,04 euro.

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 9.209,75 €

Beste zerga guztiak berdin gelditzea proposatzen da.

Idazkariak aipatzen du, guzti hau berak 2010eko urriaren 31an egindako txostenean jasota dagoela.

Azkenik Idazkariak dio, hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendeaurrean jartzen direla uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulok xedatutakoari jarriki, interesa duen edonor iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 30 laneguneko epean alegazioak aurkezteko. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio

edo oharpenik jaso gabe, erabakiak onartutzat joko dira behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2.011 ekitaldirako Ordenantza Fiskalak onartuta gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA:
UDALETXEKO IGOGAILUKO OBREN 1.ZERTIFIKAZIOAREN ONARPENA,
BIDEZKOA BADA.**

Alkateak Imara Ingenieritza, S.L-k erredaktaturiko igogailuko obren 1.zertifikazioa 27.233,37 €-takoa dala komentatzen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Udaletxeko igogailuko obren 1.zertifikazioa onartuta gelditzen da.

**LAUGARREN PUNTUA:
UDAL ARKITEKTOAREN AHOALKULARITZA ZERBITZUA EMATEKO
ADJUDIKAZIOAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.**

Ikusirik Udal Arkitektoaren aholkularitza zerbitzua emateko adjudikaziorako ondorengoak aurkeztu direla:

- 1.- Koldo Jauregi Aramendi (sarrera zk 391)
- 2.- Kele Lasa Aiestaran (sarrera zk 392)
- 3.- Arturo Garate Zubizarreta (sarrera zk 393)

Beraien proposamenak ondorengoak direlarik:

- 1.- Koldo Jauregi Aramendi: hilean orduko 45 € (BEZa barneratu gabe).
- 2.- Kele Lasa Aiestaran: hilean orduko 50 € (BEZa barneratu gabe).
- 3.- Arturo Garate Zubizarreta: hilean orduko 60 € (BEZa barneratu gabe).

Arturo Garate Zubizarreta jauna lehiaketatik kanpoan gelditu da, berak aurkeztutako proposamenak orduko aurreikusitako prezioa gaingitzen duelako.

Ondoren, enpresa bakoitzak aurkezturiko proposamena eta dokumentazioa aztertu dira. Pleguetan aipatzen diren balorazioak kontuan izan ondoren, bakoitzaren baloraketa eta puntuaketa egiten da:

1.- Administrazio Publikoetako hirigintzako aholkulari bezela aritzea:

- 1.- Koldo Jauregi Aramendi: 0,00 puntu
- 2.- Kele Lasa Aiestaran: 10,00 puntu

2.- Behin betiko onarpena izan duten Planeamendu Orokorreko dokumentuak erredaktatzeagatik:

- 1.- Koldo Jauregi Aramendi: 3,00 puntu
- 2.- Kele Lasa Aiestaran: 0,00 puntu

3.-Behin betiko onarpena izan duten Garatzeko Planeko dokumentuak erredaktatzeagatik:

- 1.- Koldo Jauregi Aramendi: 10,00 puntu
- 2.- Kele Lasa Aiestaran: 0,00 puntu

4.- Proposamen ekonomikoa:

1.- Koldo Jauregi Aramendi: 10,00 puntu

2.- Kele Lasa Aiestaran: 0,00 puntu

Guztira:

1.- Koldo Jauregi Aramendi: 23,00 puntu

2.- Kele Lasa Aiestaran: 10,00 puntu

Guzti honen ondorioz, Kontratazio Mahaiak, Udalbatzari KOLDO JAUREGI ARAMENDI-ri hilean orduko berrogeita bost euro (45,00€) (BEZa barneratu gabe) adjudikatzeko proposamena egiten dio.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Luis Berrondo Lanceta eta Joseba Iñaki Labaka Beristain.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Udal Arkitektoaren aholkularitza zerbitzuaren ustiapena Koldo Jauregi Aramendi jaunari behin behineko izaerarekin adjudikatzea onartu da.

BOSTGARREN PUNTUA:
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ERREZILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN EREDUA, UDALEK BEREZKOAK DITUZTEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak hitzarmenak literalki zera diola jakinerazten du.

“GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
..... KO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, UDALEK BEREZKOAK
DITUEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK
BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO

Donostian, 200... (e)koaren(e)an,

HONAKO HAUEK BILDURIK

Alde batetik, Juan Jose Mujika Aginagalde jauna, Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuko foru diputatua eta, bestetik, jaun/andrea,ko Udaleko alkate-lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

I

Udalerriak lurralde-antolaketaren oinarritzko erakundeak dira, bai eta herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bidea ere, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz kudeatzen dituzte.

Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izen eta kontura, foru zerga sistema eraginkortasunez aplikatzea eta, oro har, beste herri administrazio eta ente batzuen zuzenbide publikoko baliabideak ere, horiek kudeatzeko ardura Legez edo Hitzarmen bidez bere gain uzten zaionean. Hitzarmen hau dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketaren kudeaketarako dituen informazioa eta baliabide teknikoak udalerriaren esku jartzen dira.

II

Herri administrazioen arteko harremanetan elkar laguntzak printzipio gidaria izan behar duela aintzat harturik, eta 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedurarenak, 4.1.d) artikuluan ezarritakoan oinarriturik, bi aldeek uste dute, zein bere helburuak betetze aldera, oso onuragarri izan daitekeela lankidetzaren sistema egonkor bat ezartzea zergabilketaren kudeaketan.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Era berean, 8. artikulua dio Udalak eta Foru Aldundia lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.

Bestalde, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 4.2 artikuluan jasotzen duenez, Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuko zergabilketa organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko ardura hartu ahal izango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren bidezko hitzarmenak formalizatu ondoren. Dekretu horrek

berak gero 9.2 artikuluan dio entitate hauen zergabilketaren kudeaketa beraiei dagokiela, eta honako hauek burutuko dutela: a) Entitateek berek zuzenean, b) lurraldeko beste ente batzuek, hauekin behar den hitzarmena formalizatu denean edo ahalmen hau eskuordetzan eman zaienean.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak etako Udalak erabaki dute Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetzea honako oinarriei jarraituz,

OINARRIAK

Lehena. Hitzarmenaren xedea eta erregimen juridikoa.

Hitzarmen honek baldintzak eta prozedura ezartzen ditu udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko jarduketak Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain har ditzan Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren bitartez.

Jarduketa horiek arautzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamendua.
- b) Hitzarmen honen oinarriak.
- c) Aplikagarri diren gainerako arauak.

Bigarrena. Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren bitartez, udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarreren bilketa exekutiboa bere gain hartu ondoren, Hitzarmen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzekoak diren zorrei aplikatuko zaie.

Hitzarmen honetan xedatutakoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatzeko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzen dituen hitzarmenen kaltetan gabe ulertuko da.

Hirugarrena. Jarduteko eskaera, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari zuzendua.

1. Zergabilketa exekutiboan jarduteko eskaerak Udaleko alkateak egingo ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko zuzendari nagusiari zuzenduta. Horretarako, Hitzarmen honen I. eranskinean ageri den eredua erabiliko du, eta bi ale beteko ditu. Eskaera hilean behin egingo da gehienez, eta bertan sartzen diren zorrek zenbateko nagusiari buruzkoak izango dira beti. Bidezkoa denean, zenbateko nagusiari dagokion premiamenduzko errenergia gehituko zaio.

2. Eskerak tramitatu ahal izateko, ondoko informazioa jaso beharko dute:

a) Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izena, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta helbidea.

b) Zein likidazio sartzen diren eskaeran, bakoitzari buruz honako datuak adieraziz: Kontzeptua, ekitaldia, zenbatekoa, borondatez ordaintzeko epea amaitu den eguna, eta premiamenduzko probidentzia noiz egin den.

c) Premiamenduzko bidean biltzeko azken egintza administratiboa zein egunetan jakinarazi den, zorra ere adieraziz, hala badagokio.

3. Udalak euskarri magnetikoan bidali behar ditu zor guztiak. Euskarri magnetikoak bete behar dituen ezaugarri teknikoak Hitzarmen honen II. eranskinean zehazten dira.

4. Onartua izan baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu informatikoek euskarri magnetikoa balidatuko dute, beti ere bere ezaugarriak II. eranskinean aipatzen diren zehaztasunekin bat ote datozen egiaztatzeko.

Udalak bidaltzen duen euskarri magnetikoak ez baditu II. eranskinean zehazten diren beharkizun teknikoak betetzen, euskarri hori errefusatu egingo da eta udalari bueltatuko zaio.

5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoak egin behar dituen balidazioek baldintzatuko dute euskarri magnetikoaren behin betiko onarpena.

Adierazitako datuak zuzenak ez badira, udalak erantzungo du horrek eragin ditzakeen kalteengatik.

6. Jarduteko eskaeran sartzen diren likidazioek irmoak behar dute izan, eta ezingo dute 10 €-tik beherako zenbatekorik eduki. Jarduteko eskaera behin eginda Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak onartzen badu, udalak ezingo du inolako jarduketarik egin bertan sartutako zorren kontra.

7. Zergabilketaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak bere gain hartu ondoren, kudeatu beharreko zorreatatik udalari egiten zaizkion ordainketak Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketarako duen kontu murriztuan sartuko dira.

Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren eginkizunak.

1. Jarduteko eskaera hirugarren oinarrian adierazitako beharkizunen arabera behin jaso ondoren, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak udalaren alde eramango du

aurrera eskaera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduan araututako prozedurari jarraiki.

2. Zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta udalak eskatzen duen jarduketan Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak zeregin hauek izango ditu: Premiamenduzko probidentzia jakinaraztea, bidezkoa denean, kontu bankarioak bahitzea, hirugarrenen kredituak bahitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kredituak konpentsatzea, eta soldatak bahitzea (zigor ez-tributarioen kasuan izan ezik).

3. Hitzarmen honetan aipatzen diren zuzenbide publikoko sarreraren bilketa kudeatzeko, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentua zuzenbide publikoko sarrera propioak eta bere organismo autonomoenak bide exekutiboan biltzeko erabiltzen duen sistema berberaz baliatuko da. Gainera, zorrak behar bezala bildu ahal izan daitezten, Departamentuak informazioa eskatuko ahal izango dio hitzarmena izenpetzen duen udalari. Udalak ez badio informazio eskaerari hilabeteko epean erantzuten, edo agerikoa bada emandako erantzuna ez dela nahikoa gertatzen, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak uko egingo dio zorren kobrantza kudeatzeari.

4. Egindako jarduketan emaitza negatiboa denean, haiekin lotuta dauden likidazioak udalari itzuliko zazkio. Horri begira, gehienez ere 18 hilabeteko epea ezartzen da zergabilketako organo eskudunak behar diren jarduketak egin ditzan, eta epe hori udalak jarduteko eskaera egiten duen egunetik aurrera kontatuko da.

Bosgarrena. Okerreko sarreraren itzulketa.

Okerreko sarreraren itzulketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak bide exekutiboan biltzeko geratu diren zorrek zer ikusia dutenean, itzulketa horiek honela kudeatuko dira:

a) Okerreko sarrerak jada likidatu den epealdi bati dagozkionean, administrazio titularrak itzuliko ditu, hau da, udalak.

b) Okerreko sarrerak likidatu gabeko epealdiari dagozkionean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak itzuliko ditu.

Seigarrena. Errekurtsoen erregimena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoari dagokio hitzarmen honen xede diren jarduketan aurka aurkezten diren errekurtsuak bide administratiboan ezagutu eta ebaztea.

2. Auzia ebazteko aplikatu beharreko araudia errekurritutako zergabilketa jarduketari lotutako likidazioak nolako izaera duen, eta hari dagokiona aplikatuko da.

3. Premiamenduzko prozedura administratiboa errekursoak aurkezteagatik eteteko, kasuan kasuko prozedura arau aplikagarriei jarraituko zaie. Horrelakoetan, udalak berehala jakinarazi beharko dio hori dena Gipuzkoako Foru Aldundiko zergabilketa organoari.

Zazpigarrena. Zerbitzuaren kostua.

Zerbitzuagatik udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar dion kostua zergabilketa gordinaren %10ekoa izango da.

Zortzigarrena. Likidazioak egitea eta udalei fondoak transferitzea.

Hiru hilean behin Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak Hitzarmen honen xede diren jarduketan emaitza jakinaraziko dio udalari, eta horretarako III. eranskinean ageri den eredia erabiliko du.

Era berean, hiru hilean behin, aurreko hiruhilekoan bildutakoa likidatuko du zazpigarren oinarrian aipatzen den zerbitzuaren kostua zenbateko horretatik kenduz.

Informazio horri kasu bakoitzean bidezkoa den dokumentazioa erantsiko da.

Bederatzigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau 2005eko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta bere epemuga iritsi baino gutxienez bi hilabete lehenago bi aldeetako batek ez badu haren amaiera espresuki gaztigatzen, luzatutzat joko da zuzenean urtez urteko epe jarraituetan.

Eta azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi aldeek goiburuan ageri den tokian eta egunean sinatzen dute hitzarmena”.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Luis Berrondo Lanceta eta Joseba Iñaki Labaka Beristain.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errezilgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmen eredia, Udalek berezkoak dituzten zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko hitzarmena aho batez onartu da eta Alkateari Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen hau sinatzeko baimena ematen zaio.

Momentu honetan, Jose Luis Albisua eta Luis Arzallus zinegotziak bertaraten dira.

**SEIGARREN PUNTUA:
SAN MARTIN JAIETARAKO EGITARAU ETA AURREKONTUAREN
ONARPENA.**

Iñaki Labaka zinegotziak dio aurtengo San Martin jaietarako aurrekontua 7.500,00 €-takoa dela, ondorengo kontzeptutan banatuta:

- 1.- Hamaiketakoa: 400 €
- 2.- Haur jolasak: 350 €
- 3.- Play-Back: 100 €
- 4.- Izer, Alabier eta Lutxurdio: 600 €
- 5.- Mus txapelketa: 200 €
- 6.- Txerri bodak eta txotxa: 1.000 €
- 7.- Kupela: 1.100 €
- 8.- Herriko produktuen erakusketa eta salmenta, ardi gazta eta postre lehiaketa: 1.800 €
- 9.- Herri kirolak: 800 €
- 10.- Pilota partiduak: 900 €
- 11.- Besteak: 100 €

GUZTIRA- 7.500 €

Aurrekontu prestatua: 7.500 €, hauetatik 1.000 € Domusak finantziatutako ditu.

San Martin jaiak azaroaren 11, 12, 13 eta 14an izango dira gehi azaroaren 21ean jubilatuen bazkaria.

Azaroaren 11an, ostegunean, jaiek hasierekin, meza, hamaiketakoa eta ume jolasak.

Azaroaren 12an, ostiralean, herri afaria, play-back eta Izer, Alabier eta Lutxurdio.

Azaroaren 13an, larunbatean, mus txapelketa, txerri bodak eta txotxa eta Kupela taldea.

Azaroaren 14an, igandean, meza, herriko produktuen erakusketa eta salmenta, herriko ardi gazta lehiaketa eta poste lehiaketa eta herri kirol saioa.

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehena.- 2010 ekitaldiko San Martin jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2010 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.06 kontu sailari 6.500 euro egoztea.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri irratia bitartez.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Jose Luis Albisua Lasa eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, San Martin jaietako aurrekontua eta egitaraua onartuta geratzen dira.

ZAZPIGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

1.- Alkateak Aluminios Azpeitia, S.L-k aurkezturiko Udaletxeko igogailuko 27.233,37 €-tako 1.zertifikazioaren berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Jose Luis Albisua Lasa eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, aipaturiko ordainagiria onartuta geratzen da.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak ondorengo Alkatetza Ebazpenen berri ematen du:

- 1.- Udaletxe gaineko etxebizitzaren akura bermatzeko jarritako abalaren itzulera.
- 2.- Errezilgo gunea, 029 01 Sara etxean pertsona bat erroldatzea.
- 4.- SS-4177-AD matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionalaren itzulera onartzea.
- 5.- 2010eko urriko fakturen zerrendaren onarpena.
- 6.- San Martin jaietan amnistiaren aldeko taberna frontoian jartzeko baimena ematea.
- 7.- San Martin jaietan Erniope elkarte publikoari irekitzeko baimena ematea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamarrak direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.